



KANALAK

Gure proiektua gizartera zabaldu ahal izateko zenbait komunikazio kanal erabiliko ditugu, esaterako, proiektuaren berri emateko hitzaldiak, adibidez herriko antzokian. Beste komunikazio kanal bat sare sozialen eta kartelen bidez iragarkiak egitea izango da. Bukatzeko, webgune bat ere sortuko dugu, non informazio dena bilduko den eta bezeroen edozein galdera mota erantzungo diren.

Lehenik eta behin, sare sozialen bidez ez dugu beharko inolako bitartekaririk guztia prestatzeko, zeren eta zuzeneko kanala izango baita. Gu izango gara sare sozialak sortuko eta kontrolatuko dituztenak, eta ez dugu beharko kanpoko laguntzarik. Instagram, Facebook, Twitter eta TikTok izango dira erabiliko ditugun sare sozialak. Hauetan, kontu bat sortu eta proiektuaren berri emango dugu, esate baterako, proiektuaren argazkiak eta erabilpenak erakutsiko ditugu, bezeroak gure negozioa hurbildu daitezten eta saltzen duguna ezagutu dezaten.

Iragarkiak egiteko beste modu bat, kartelen bidez egingo dugu. Kartelak guk sortuko ditugu, beraz, hemen ere ez dugu izango gehiegizko gastu ekonomikorik, ez baitugu beharko bestelako laguntzarik. Kartel hauek, ordenagailuetako aplikazioek eskaintzen dituzten txantiloien bidez egingo ditugu, esate baterako, Canva aplikazioa erabilia, diseinu erakargarri batekin publikoa gerturatu dadin proiektua ezagutzera.

Bestalde, hitzaldiak egingo ditugu edozein publikori bideratuta. Hitzaldi hauen helburua jendeari teknologia berri honeri buruz berri ematea izango da, eta informazioa lortzea. Gainera, baliabide teknologiko mugatua duten pertsonentzat zuzenduta egongo dira hitzaldi hauek, sare sozialik ez duten pertsonak kontuan hartu nahi ditugulako. Hitzaldi hauetan edozein galdera erantzuteko prest egongo gara, eta era berean, proiektu honen ahultasunak indartzeko eta hauek hobetzeko aprobetxatuko dugu, publikoaren iritziak eta ikuspuntuak kontuan hartuz, positiboak eta baita negatiboak ere. Hasiera batean, hitzaldiak, Antzokian izango dira, baina beste leku batzuetan eskaintza balegoke, prest egongo ginateke leku horietan ere hitzaldiak emateko, proiektua ahalik eta gehien zabaldu dadin.

Amaitzeko, webgunearen erabilera sustatuko dugu. Webgune bat sortuko dugu, eta hemen, gure produktua online erosteko aukera emango du. Bestalde, informazio gehigarria emango du, bideo batzuen eta argazki batzuen laguntzarekin. Beste sare sozialetan sartzeko bidea ere jarriko dugu, bertan agertuko baita sare sozial guztietara sartzeko esteka. Baita, galderen atal bat egongo da, non produktua

erostea nahi duten pertsonak ahalko duten edozein galdera mota egin. Atal honetan lehenbailehen erantzun bat edukiko du galdera egin duenak, langile bat egongo baita honetaz arduratuko dena. Hona hemen webgunearen link-a: <https://editor.webme.com/user/editor>